

MEMORIA 2020



GOIZ EGUZKI JUBILATUEN EGOITZA

Atzietā, 16 HERNANI

Tfn. 943551032 - 747403437

www.goizeguzkihernani.eus

AURKIBIDEA

1. SARRERA
2. BAZKIDEAK
3. GOIZ EGUZKIREN HELBURUAK
4. 2020KO BATZARRAREN AKTA ETA BALANTZE EKONOMIKOA
5. ZERBITZUAK
6. 2020KO JARDUERAK
7. HIZKUNTZEN KUDEAKETA GOIZ EGUZKIN
8. BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK
9. ONDORIOAK
10. ERRONKAK
11. ESKERTZAK

1. SARRERA

Beste urtebete joan da. Goiz Eguzkirentzat ez da espero zuen urtea izan, aldaketa handiko urte arraro bat baizik.

Lehenengo aldaketa aurreko Zuzendaritza Batzordearen dimisioa izan zen. Paco Goyak zuzentzen zuen taldekide guztiek utzi zuten otsailean, kargu horietan urte asko eman ondoren. Boluntario talde batek hartu zuen orduan Zuzendaritza eta M^a Jose Lopez de Zubiria lehendakari izendatu zuten.

Talde berria eratu eta berehala, zoritxarrez, COVID-ak eraginda, itxi egin behar izan genuen Zentroa eta jarduera guztiak eten ziren.

Beste aldaketa esanguratsua urteko kuotak kobratzeko moduan gertatu zen. Zentroa itxita eta osasun neurriak medio, ezin zen kuota dirutan eskura ordaindu. Horregatik, eta kobraketa errazteko, kuota banketxe bidez ordaintzea aholkatu zitzaizen bazkideei eta halaxe egin zuten askok.

Osasun larrialdia uste baino gehiago luzatzen ari zenez, Zuzendaritza talde berriak lanean jarraitzea erabaki zuen nahiz eta Zentroa itxita egon.



2. BAZKIDEAK

2020. urtean zehar bazkideen datuak informatizatzen aritu ginen eta horretan jarraitzen dugu oraindik ere. Helbideak eta telefono mugikorren zenbakiak ere sartzen ari gara datu-basean eta baita kontu korrontek eta posta elektronikoak ere, ordainketak eta komunikazioa errazteko.

Datu-base horretan oinarrituta, kontabilitatea eguneratu dugu eta horri esker jakin dezakegu kuoten ordainketak egunean ote dauden. Bestalde, aukera ematen digu estatistikak eta azterketak egiteko eta bazkideen argazki bat egiteko, adin, genero nahiz bizitokia bezalako adierazleak kontuan hartuz.

Horrela, bada, hauxe da 2020ko abenduaren 31ko argazkia:

- Bazkide kopurua: 1.196 (722 emakumezko eta 474 gizonetzko)
- 2020ko altak: 34 (19 emakumezko eta 15 gizonetzko)
- 2020ko bajak: 21, heriotzagatik, eta 8, hala nahi izan dutelako
- 2020ko kuota ordaindu dutenak: 1.017
- Bazkideak adinka:



- Bazkideen jatorria:

PROBINTZIA	GUZT.	EMAK.	GIZON.
	1175	708	467
GIPUZKOA	566	349	217
CACERES	131	75	56
SALAMANCA	69	43	26
NAFARROA	67	42	25
PALENTZIA	47	26	21
BURGOS	33	24	9
VALLADOLID	27	13	14
BADAJOS	24	18	6
ERRIOXA	19	9	10
JAEN	18	12	6
LEON	16	8	8
AVILA	14	6	8
GRANADA	14	10	4
SORIA	14	8	6
A CORUÑA	13	9	4
ZAMORA	13	6	7
KORDOBA	10	7	3
PONTEVEDRA	8	5	3
KANTABRIA	7	4	3
LUGO	6	2	4
MADRIL	6	6	0
ZARAGOZA	6	3	3
MALAGA	5	3	2
OURENSE	5	4	1
SEVILLA	5	2	3
ALBACETE	4	2	2
ARABA	4	2	2
CIUDAD REAL	4	2	2
SEGOVIA	4	1	3
BIZKAIA	3	1	2
CADIZ	3	1	2
HUESCA	3	2	1
GUADALAJARA	2	0	2
BARTZELONA	1	1	0
LLEIDA	1	0	1
MURTZIA	1	0	1
TOLEDO	1	1	0
VALENTZIA	1	1	0

HERRIA	GUZT.	EMAK.	GIZON.
	21	14	7
PORTUGAL	11	7	4
MAROKO	2	1	1
AEB	2	2	0
KROAZIA	1	0	1
KUBA	1	1	0
FRANTZIA	1	0	1
NIKARGUA	1	1	0
TXILE	1	1	0
KOLONBIA	1	1	0

3. GOIZ EGUZKIREN HELBURUAK

Gure helburu orokorrak hauek dira:

- 1) Giro ona sortzea Zentroan, gure arteko **harremanak errazak eta atseginak** izan daitezen; eta, denon parte hartzearekin, kudeaketa txukuna egitea.
- 2) **Jarduera erakargarri eta anitzak** antolatzea, bazkide guztion parte hartzea eta ekarpenak kontuan hartuta bai egitaraua osatzerakoan eta baita gauzatzerakoan ere. Eta jarduera horiek burutzeko espazioa atontzea, irisgarria, eroso eta atsegina izan dadin.
- 3) Besteekiko **jarrera solidarioa** sustatzea.
- 4) Herriko eta inguruko eragileekin **elkarlanean aritzea**, hitzaldiak, bilerak edota jarduerak elkarrekin prestatuz.
- 5) Gure **osasun fisikoa** zaintzea, eta horretarako jarduerak antolatzea: gimnasia, yoga, martxa nordikoa, antzerkia eta ibilaldiak (Ttapa-Ttapa)
- 6) Gure **osasun mentala** zaintzea eta **ikaskuntza iraunkorra** garatzea, horretarako egokiak diren jarduerak antolatuz: Eguneko Arreta eta Memoria ikastaroak, Erlaxazio ariketak, ikastaroak, hitzaldiak, erakusketak, irteera kulturalak, etab.
- 7) **Euskararen erabilera normalizatzea**, ahoz eta idatziz. Euskarako ikastaroak antolatzea, "mintza" taldeak, eta euskara eta gaztelania erabiltzea idatzizko komunikazio guztietan: oharrak, informazio panelak etab.
- 8) Bazkideak **teknologia berrietan trebatzea**, horretarako ikastaroak eskainiz.
- 9) Bazkide eta Goiz Eguzkiren arteko **komunikazioa arintzea eta erraztea**, posta elektronikoa, whasapa eta gure weborri berria erabiliz www.goizeguzkihernani.eus.

4. 2020KO BATZAR NAGUSIAREN AKTA ETA BALANTZE EKONOMIKOA

2020ko otsailaren 25ean egin genuen Batzar Nagusia. 137 bazkide etorri ziren eta 2019ko Memoria banatu genuen.

2019ko Balantze ekonomikoa gelan bertan jarritako panel batzuetan azaldu genuen, beti bezala, Memorian ez baitzegoen jasota.

Bilera honako pertsona hauek bideratu zuten: Xabier Lertxundi, Hernaniko alkatea, Jose Leon Etxart, Zerbitzu Sozialetako kudeatzailea, eta Zuzendaritza Batzordeko kideak: Francisco Goya Zubeldia (lehendakaria), Maria Rosario Echarri Aguirre (idazkaria), Tomas Alonso Irurzun (diruzaina) eta Andres Cemborrain Romano (bokala)

GAI ORDENA

1. 2019ko Batzar Nagusiaren akta irakurri eta onartzea, hala badagokio.
2. 2019ko Balantze ekonomikoa irakurtzea.
3. Zuzendaritza Batzorderako hautagaiak aurkeztea eta lehendakaria aukeratzea.
4. 2019ko jarduerarik esanguratsuenak azaltzea, labur.
5. Erreguak eta galderak.

LANDUTAKO GAIK ETA HARTUTAKO ERABAKIAK

1. Akta onartu egin da.
2. Balantze ekonomikoa onartu egin da.
3. Lehendakarigaiak bere burua aurkeztu du eta Zuzendaritza Batzorde berria osatuko duten gainerako hautagaiak deitu ditu.

Onartu egin da Zuzendaritza Batzorde berria. Bi emakumezko eta bederatzi gizonezko osatuko dute:

Lehendakaria M^a José López de Zubiria Fransoy

Lehendakariordea Jose Antonio Olano Zubiri

Idazkaria Ana Teresa Rodríguez Apaolaza

Diruzaina Angel Telleria Otamendi

Bokalak Victorio Baro Baro

Andrés Cemborain Romano
José M^a Elordi Jauregui
Luis Folgueiras Romero
Manuel M^a López Gorrochategui
Jesús M^a Múgica Arribillaga
Pablo Peñacoba Alamo

4. Lehendakariak 2019ko jarduera esanguratsuenen azalpena eman du.
5. Bazkide batek galdetu du zein diren Zuzendaritza berriaren planak eta proiektuak. Lehendakariorde izendatu berriak dio ondo funtzionatu duten proiektuek bere horretan jarraituko dutela eta hobetu beharra daudenak hobetzen saiatuko direla.

5. ZERBITZUAK

Zuzendaritza Batzordearen aldaketak eta osasun larrialdiak eraginda, eten egin behar izan ziren martxan zeuden zerbitzuak.

Tabernak ere denboraldi luzea itxi behar izan zuen. Berriro ireki zenean gomendatutako neurri sanitario guztiekin egin zuen, hala nola mahaien arteko distantzia, edukiera mugatua, gel hidroalkoholikoa... Geroztik taberna zerbitzua eta eguneroko menuak eskeintzen jarraitzen digu, astelehenetan izan ezik.

Pixkanaka irekitzen joan gara, aurrez hitzordua hartuta, eta oso harrera ona izan dute honako zerbitzu hauek:

- **Podologia**: Isabel oin-artatzaileak utzi egin zuen zerbitzua eta, haren ordeztu, Patri Urbieta podologoa urrian hasi zen zerbitzua eskaintzen astearteetan. Urte amaiera bitartean 176 pertsona artatu zituen.
- **Ileapaindegia**: Miren Larrañagak hartu zuen urrian Rosa Sanchez-en lekua, honek ez jarraitzeko erabakia hartu baitzuen. 68 zerbitzu eman ditu.
- **Fisioterapia**: Saiatu ginen Kimera zentroarekin akordioa egiten zerbitzua ematen jarrai zezan, baina, lortu ez zenez, Maria

Salaberria fisioterapeuta gaztea hasi zen azaroan lanean. 42 lagunek jaso dute zerbitzua.

6. 2020KO JARDUERAK

Izurriteak jo gintuenean martxan zeuden jarduera gutxiak eten egin behar izan ziren eta ezin izan dira abian jarri urte honen hasiera arte. Horien artean zeuden **Eguneko Arreta**, **Ezagutza Estimulazioa** edota **Memoria lantzeko Tailerrak**, batetik, eta **Goiz Eguzkiko Abesbatzaren** entsaioak, bestetik. Abesbatzak bi alditan soilik kantatu ahal izan du: urtarrilaren 3an Goiz Eguzkin eta Zaharren Egoitzan, urteari ongietorria emateko, eta Santa Ageda bezperan herriko kaleetan barrena.

Hiru taldek kiroldagian egiten zuten **gimnasia tailerra** ere bertan behera geratu zen. Urrian ekin zioten berriro, baina talde berri eta pertsona gutxiagorekin.

Gainerako jarduera eta ospakizunak ezin izan ziren egin. Salbuespena **Gabonetako zozketa** izan zen, nahiz eta antolaketan aldaketa batzuk egin behar izan ziren, hala nola, atarian egin behar izan zen zozketa eta ez barruan, eta zozketan izena ematen zutenen artean 5 saski zozketatu beharrean, 10 sorta zozketatu ziren kuotaren ordainketa egunean zuten bazkide guztien artean. Aplikazio informatiko bat erabiliz egin ahal izan zen modu horretara.

Gabonetako Loterian ere aldaketa egin behar izan genuen. Zentroa itxita zegoenez, loteria Lete dendan jarri genuen salgai.

Zentroa urte guztian itxita egon den arren, Zuzendaritza Batzordea lanean aritu da. Honako hauek izan dira egin dituen lanak:

- **Lan burokratikoak:** Zuzendaritza Batzordea aldatzeak eskatzen dituen tramiteak egin ditugu: Estatutuak berrikusi, Elkarteen Erregistroan izena eman etab.
- **Zentroa irekitzeko osasun protokoloak prestatzea.** COVID-19tik babesteko osasun neurriak etengabe egokitu behar izan dira.

- **Profesionalak bilatu eta kontratatzea:** podologoa, ileapaintzailea eta fisioterapeuta.
- **Hainbat inbertsio:**
 - Ordenagailu berriak **erostea** eta lehengoak **konpontzea** informatika gela berriro irekitzeko.
 - Podologia gelarako gailu profesionalak **erostea**.
 - Telefono mugikor berria **erostea** bulegorako, bazkideei informazioa azkar eman ahal izateko (whasap edo SMS bidez)
- **Bazkideen datuak** bildu eta eguneratzea.
- Bildutako datuak **informatizatzea**.
- **Weborria sortzea** www.goizeguzkihernani.eus
- Jarduera berrietarako **Proiektuak** (ezin izan dira zehaztu)
- **Berrikuntza lanak** beheko solairuan sarrerako gela hoeto argiztatzeko.
- **Aroztegi tailerra** hustutzea. Udaleko Lan Segurtasunerako teknikariak oso arriskutsutzat jo zuen espazioa eta hustu egin da. Espazio hori egokitu egingo dugu beste jarduera batzuk egin ahal izateko.
- **Bezeroei aurrez aurreko arreta eskaintzea.** Azarotik aurrera astelehen, asteazken eta ostiraletan, 16:00etatik 18:00etara bezeroei arreta eskaini zaie osasun neurriak hartuta.

7. HIZKUNTZEN KUDEAKETA GOIZ EGUZKIN

Goiz Eguzkin euskararen normalizazioa lortzeko:

- Komunikazio, ohar eta abixu guztiak euskaraz eta gaztelaniaz jarri ditugu, bai barneko oholetan eta bai prentsan nahiz webean.

- Bezeroei arreta euskaraz ematen zaie bulegoan ahal den guztietan.
- Honako prentsa hauetarako harpidetzak egin dira: Kronika, Gara, Berria eta Diario Vasco. Hedabideak beheko egongelan daude bazkideen eskura.
- Zentroan zerbitzuak eskaintzen dituzten profesionalak elebidunak dira.

8. BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK

Honako erakunde hauekin izan ditugu harremanak 2020an zehar:

Hernaniko Udala, Zerbitzu Sozialak, Helduen Kontseilua (bileretara Zuzendaritza Batzordeko kide bat joango da), **AMHER elkarte**a, **Gipuzkoako Odol Emaleen Elkarte**a (hilean behin odola ateratzen da Zentroan), Donostiako **Erdialde Elkarte**a eta Ordiziako **Zuhaizti Elkarte Soziala**.

9. ONDORIOAK

COVID-19ak eragin duen osasun larrialdiak ez digu aukerarik eman jarduerak aurrera eramateko eta Goiz Eguzki Zentroaz gozatzeko, baina garbi utzi du gauza bat eta zera da, Teknologia Berriak erabiltzeko premia. Horregatik, saiatuko gara bazkide guztiei ikasteko aukerak ematen, teknologia horiek erabiltzeko gutxieneko ezagutza eskuratu dezaten: posta elektronikoa, whasap taldeak, internet etab.

Beste alde batetik, eta lehen esan dugun moduan, garrantzitsua da bazkideek beren kuotan banketxe bidez ordaintzea.

Horregatik guztiagatik, beren posta elektronikoa eta telefono mugikorraren zenbakia eta kontu korrontearen zenbakia eman ez duten bazkideei eskatzen diegu ahalik eta lasterren emateko, komunikazioa eta ordainketa errazteko.

10. ERRONKAK

- Errealitatea eta egunerokoa aztertzen segi, sortzen diren beharrez jabetu eta Goiz Eguzkiren antolaketa eta funtzionamendua **hobetzeko**.

- **Bazkideen parte hartzea** sustatzeko estrategiak erabiltzea.
- Herriko erakundeekin **elkarlanean** aritzea, elkarren interesekoak diren gaietan.
- Ospakizun **egun jakinetan** jarduerak antolatzea: Emakumeen Eguna, Langileen Eguna, Sanjoan jaiak, San Tomas...
- Harrera ona izan duten **jarduerak** antolatzen jarraitzea eta berriak prestatzea. Jardueren berri emango dugu Zentroko oholtzan, prentsan, Goiz Eguzkiko webean eta posta elektronikoko eta mugikorren bidez.
- **Teknologia berriak** erabiltzea bazkideen eta Zuzendaritza Batzordearen arteko komunikazioa arinagoa izan dadin.

11. ESKERTZAK

- Aurreko Zuzendaritzari, hainbeste urtetan egindako borondatezko lanarengatik, eta behar izan dugun guztietan eman diguten laguntzagatik.
- Udalari eta Zerbitzu Sozialei, beren laguntasunagatik.
- Bazkideei, erakutsi duten pazientziagatik eta jarrera ulerkorragatik.
- Ordiziako eta Donostiako (Erdialde) jubilatuen etxeetako lehendakariei, beren aholkuak laguntza handikoak izan zaizkigulako.
- Brintzari, burokrazia eta lege kontuetan aholkularitza emateagatik.
- Laguntzaileei, jarduerak antolatzen eman duten eta emateko asmoa duten denboragatik.
- Oronari eta Zikuñagari, emandako diru laguntzengatik.